


ESTIBAUS

ALTZAKO HISTORIA MINTEGIaren buletina - 55. zenb. / 2025



Argazkilaria: Francisco Armendáriz Otalora



www.estibaus.info



Altzako
Historia
Mintegia
1986 - 2026

AHM

ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA
Herrera pasealekua 58-A. 2017 ALTZA
(+34) 649 496 607
ahm@altza.net
www.altzanet.eus

ESTIBAUS 2025 55. zenbakia

AHMko batzordea:

ANTXON ALFARO SAGASTI
RAFA ALTUBE ZUMALDE
MIKEL BABIANO LOPEZ DE
SABANDO
IÑIGO LANDA IJURKO
MARIBEL MANZANO HERCE
SAIOA PAULIS ULE
JON SERRANO GAMAZA
KARLOS SOLANA ARRUTI
MIKEL UBILLOS SALABERRIA

Azaleko argazkia: Francisco
Armendáriz Otalora

Lege gordailua: SS103/97
Fotokonposaketa:

Zirrimarra eta Astidiseinua
estudio grafikoak

Inprimaketa: *Leitzaran grafikak*, S.L.

OHARRA / AVISO

Estibaús blogean 2025. urtean argitaratutako 52 sarreretatik 45 euskaraz zein gaztelaniaz irakur daitezke, 4 soilik euskaraz, 2 soilik gaztelaniaz, eta beste 1 galegoz. Paperean, ordean, leku faltagatik, artikulua guztiak hizkuntza bakarrean jarri ditugu, eta blogean beste hizkuntzan ere irakurtzerik baldin badago dagokion izenburua gehituz adierazi dugu.

De las 52 entradas publicadas en el blog Estibaús en 2025, 45 se pueden leer tanto en euskara como en castellano, 4 solo en euskara, 2 en castellano, y 1 en gallego. Por cuestión de espacio, aquí las hemos publicado solo en uno de ellos, añadiendo la traducción del título en los casos que cuenten en el blog con la versión en el otro idioma.

AURKIBIDEA / ÍNDICE

2025ean Estibaús blogean argitaratutako artikulua
Artículos publicados en el blog Estibaús en 2025

3. **TOKIKO BILDUMA / COLECCIÓN LOCAL**
 - Conflicto, gobernanza y paisaje en la Bahía de Pasaia / Gatazka, gobernantza eta paisaia Pasaia badian
 - El fondo fotográfico "Felix Iranzo" sigue aumentando / "Felix Iranzo" argazki-funtsa handitzen ari da
 - "Altza 1931-1937: ilusio galduen kronika" / "Altza 1931-1937: crónica de ilusiones perdidas"
 - Exposición: "Tiempos de cambio (años 70 y 80)" / Erakusketa: "Aldaketen garaiak (70eko eta 80ko hamarkadak)"
 - Angelubeako toponimia 1806an: paisaiaren altxor linguistikotik / La toponimia de Angelubea en 1806: un pequeño tesoro lingüístico
 - Sarroetako portutik La Herrerara / "Desde el puerto de Sarroeta a la Errera"
 - "Nuestra Señora de Hua" naoa (1598) / La nao Nuestra Señora de Hua (1598)
 - Las sidrerías en Altza en 1931-1933 / Sagardotegiak Altzan 1931-1933 urteetan
10. **KRONIKA ZAHARRAK / CRÓNICAS ANTIGUAS**
 - Domingo de Arnao Bidaori emandako lizentzia hiru esklabo beltz eramateko Ameriketara (1537) / Licencia dada a Domingo de Arnao Bidao para llevar tres esclavos negros a América (1537)
 - Gaur 40 urte ireki ziren Altzako anbulatorio berriko instalazioak / Hoy hace 40 años que se abrieron las instalaciones del nuevo ambulatorio de Altza
 - Martuteneko Estankoa
 - Marijuandegi eta Echarri abizena
 - "Nueva iglesia"
 - Os irmáns Lobeira en Pasaia. Valeroso clan
18. **IKERKETA / INVESTIGACIÓN**
 - Plantaciones de robles para la construcción naval en Altza en el siglo XVI / Ontzigintzarako haritz-landatzeak Altzan XVI. mendean
 - El informe "Memoria histórica Altza (1936-1958)" de Aranzadi / Aranzadiren "Oroimen historikoa Altza (1936-1958)" txostena
29. **ALTZANATURA**
 - Altzako XII. Naturaldia
 - Basografia, naturarekin konektatzeko argazkilaritza / Basografia, conectarnos con la naturaleza a través de la fotografía
31. **BERTSOAK / POESÍA**
 - "Poesiarekin mailua", Irigoien eta Itsubia Arestiren omenez
33. **TXANGOAK / EXCURSIONES**
 - + 55 Caminos desde Altza, temporada 2025 (abril-octubre) / +55 Altzatik abiatutako ibilbideak, 2025 denboraldia (apirila-urria)
 - Jane's Walk Martutene
 - Ibilaldia Altzako Institutuko ikasleekin / Excursión con las alumnas y alumnos de Altzako Institutua
 - Excursión molera por Esteribar (Navarra)
35. **NOTIZIAK / NOTICIAS**
 - XXXIX Campeonato de Mus / XXXIX. Mus Txapelketa
 - Euskaraldia Altza Herrian
 - X. Feria de la Trufa / X. Boilur Azoka
 - San Martzialak. Altzako jaiak
 - Ganbara Bildumaren aurkezpena Garberan / Presentación de la colección Ganbara en Garbera
 - Altzako [Historiaren] pasealekuan margotutako muralaren aurkezpena / Presentación del mural pintado en el paseo [de la Historia] de Altza
 - Búsqueda de testimonios e información sobre mujeres represaliadas en el franquismo / Frankismoan errepresaliatutako emakumei buruzko testigantzak eta informazioa bilaketa
 - Partekatuz ospatzeko gonbidapena / Invitación a celebrar compartiendo
39. **KRONIKAK (EGUNGOAK) / CRÓNICAS ACTUALES**
 - Gabonak, Urte Amaiera eta 2025eko etapa berriaren hasiera / Navidad, Fin de Año y comienzo de la nueva etapa 2025
 - Febrero en Herrera / Otsaila Herreran
 - Santa Ageda abesbatzak eta Kaldereroak Herreran / Coros de Santa Ageda y Kaldereroak en Herrera
 - AHMren aurtengo Batzarra / La Asamblea de AHM de este año
 - Convivencia entre disfrute y esfuerzo en Herrera / Gozamenaren eta ahaleginaren arteko bizikidetzatza Herreran
 - Actuación de Trebera Taldea / Trebera Taldearen emanaldia
 - Miravalles-en armaria zortzi urte geroago berriro agertu da / El escudo de Miravalles reaparece ocho años después
 - 80 metros de historia: Presentación del mural de Nexgraff en Tomasene / 80 metro historia: Nexgraff-en horma-irudiaren aurkezpena Tomasenen
 - Herrerako Kantujira
 - El racionalismo rural escondido en Altza: el caserío Akular / Akular baserria, Altzan ezkutuan dagoen landa arrazionalismoa
 - Mikel Zabalza gogoan... berrogei urtez
 - 2026ra begira jarrita / Con la vista puesta en 2026
 - Navidad 2025 y Año Nuevo 2026 / Gabonak 2025 eta Urte Berria 2026.
45. **IRITZIAK / OPINIÓN**
 - El patrimonio histórico en el nuevo Plan General: Carencias y soluciones / Ondare historikoa eta Plan Orokor berria: Gabeziak eta irtenbideak
 - Notas, conclusiones, debates y comentarios
 - Altzako Herriko Etxea: iragana, oraina... eta ETORKIZUNA??? / El ayuntamiento de Altza: pasado, presente... y FUTURO?
47. **IN MEMORIAM**
 - Jose Luis (Pascasio) Mendizabal Yarzabal, Peruene baserria - Herrera
 - Eulali Peña Danborenea
 - Eduardo Cuesta Albisua (1942-2025)
 - In Memoriam: Luis Gómez Dambolenea
49. **Memoria 2025**



www.estiba.us.info



TOKIKO BILDUMA / COLECCIÓN LOCAL

Conflicto, gobernanza y paisaje en la Bahía de Pasaia

Gatazka, gobernantza eta paisaia Pasaia-ko badian (🖨)

2025-01-07

Ahora hará ocho años, Enrique De Rosa, entonces estudiante de doctorado, recopilando mapas de la bahía de Pasaia, se encontró en internet con el fondo reunido en la Colección Local de Altza, y se puso en contacto con nosotros. A partir de ahí, mientras trabajaba en su investigación, se inició un intercambio que duró más de dos años, elaborando mapas, buscando historias de vida, realizando encuestas abiertas que luego le sirvieron para analizar el diagnóstico y posterior solución a los hechos relacionados con la regeneración urbana de la Bahía. Enrique estuvo consultando la biblioteca de AHM y los fondos de la Colección Local, especialmente

te la hemeroteca de finales del XIX y comienzos del XX. Finalmente, defendió su tesis doctoral en 2022, con el título: “Conflicto, Gobernanza y Paisaje en la Bahía de Pasaia (Gipuzkoa). Dinámicas territoriales de evolución y cambio de usos”.

Él se sentía en deuda con nosotros y se ha ofrecido a presentarnos los mapas y la descripción del lugar que le han ayudado a realizar la tesis y las conclusiones a la que ha llegado, haciendo especial hincapié en Altza. De este modo, hemos preparado esta presentación que tendrá lugar en **Tomasene, el 23 de enero, jueves, a las 19:00 horas**, y tendrá una duración aproximada de una hora.

Enrique De Rosa Giolito es licenciado en Geografía (Universidad del País Vasco) y doctor en Geografía con mención internacional por la Universidad Nacional de Educación a Distancia (UNED), España. Su línea de investigación es el paisaje, la gobernanza y la relación puerto-ciudad, principalmente en la Bahía de Pasaia, producto de su tesis doctoral, y sobre la que actualmente se encuentra trabajando en diversos artículos y capítulos de libros.



El fondo fotográfico “Felix Iranzo” sigue aumentando

“Felix Iranzo” argazki-funtsa handitzen ari da (🖨)

2025-01-27
Antxon Alfaro

El fotógrafo altzatarra Félix Iranzo plasmó a través de su cámara la gente, el ambiente y los edificios de Altza desde mediados de los años 50 hasta los 70. Muchas de esas fotografías ya se encontraban en la Colección Local de Altza gracias a la donación de particulares. Pero ha sido el año pasado, cuando su hijo Manolo Iranzo nos cedió una cantidad importante de *negativos* fotográficos de formato 1-*Gatazaka* que todavía conser-



(1962)

vaba la familia. El sistema que tenía Félix de organizar sus trabajos fotográficos nos permite afirmar que, aunque se ha recuperado una parte importante, más de la mitad de su producción fotográfica se ha perdido.

El proceso de digitalización no ha sido fácil por el tamaño especial de los negativos. Para ello, hemos contado con la inestimable colaboración de Kike Muñoz, que ha limpiado los negativos para después escanearlos. Tras un trabajo de documentación de las fotografías realizado junto con Manolo Iranzo, las fotografías se han catalogado en la Colección Local de Altza.

“Altza 1931-1937: crónica de ilusiones perdidas”

“Altza 1931-1937: ilusio galduen kronika”



2025-02-07

Grupo de Trabajo de Memoria e
Historia del Distrito Este

El próximo **22 de febrero**, sábado, a las 11:00 de la mañana, en el local de la **Asociación de Jubilados/as y Pensionistas Nao Etxea**, tendrá lugar el acto de presentación pública del documental **“Altza 1931-1937: Ilusio galduen kronika”** (“Altza 1931-1937: Crónica de ilusiones perdidas”). Se trata de un corto documental, realizado por iniciativa del grupo de trabajo de Historia y Memoria del Distrito Este, en el marco del acto de reconocimiento que se dedicó el 11 de septiembre de 2021, en la antigua casa consistorial altzatarra, a la corporación municipal constituida a partir de las elecciones municipales que trajeron la Segunda República. El documental ha sido realizado en euskera, con subtítulos en castellano.

Además de la realización del corto, también se encargó un **informe sobre las víctimas altzataras de la Guerra Civil** a la Sociedad de Ciencias Aranzadi, y se terminó con la **restauración de los muebles de la salón de plenos** del ayuntamiento altzatarra.

En el acto intervendrán el concejal Iñigo García, Altzako Historia Mintegia en nombre del grupo de trabajo, y Ion Urrestarazu, autor de “Altza durante la Guerra Civil Española”, quien hablará del contexto histórico.

Asimismo, a lo largo de la mañana del sábado se podrá ver una **exposición** con fotografías, documentos y crónicas de prensa recogidas en la Colección Local de Altza y que han servido de soporte para documentar el corto. La exposición se podrá visitar en el salón de plenos





del ayuntamiento de Altza, en horario de 9:30 a 10:30 y de 12:00 a 13:30; junto con la exposición se podrán apreciar los muebles restaurados de la sala de plenos municipales.

Exposición: “Tiempos de cambio (años 70 y 80)”

Erakusketa: “Aldaketen garaiak (70eko eta 80ko hamarkadak)” (🖨️)

2025-03-04


En Tomasene, del 6 de febrero al 3 de abril, se puede visitar la exposición “Tiempos de cambios (años 70 y 80)”. Con este título recogemos una pequeña muestra de los documentos que forman parte de la Colección Local de Altza. Fotografías, revistas, calendarios, pegatinas, vídeos..., muchos de ellos catalogados recientemente, que nos informan de los cambios experimentados en los años 70 y 80. La exposición la pudimos ver una tarde en diciembre, con motivo de la presentación de la web www.altza.info, y ahora estará expuesta en un espacio de tiempo más amplio a la entrada de Tomasene.

En total son veintiocho paneles que ofrecen otras tantas pinceladas sobre temas importantes de ese periodo: movilizaciones de asociaciones vecinales, creación de nuevos barrios y polígonos industriales, trabajo a favor del euskera, política, influencia de la heroína en la sociedad, fiestas, etcétera.

En la pantalla situada en la entrada se pueden ver cinco vídeos cortos colocados en bucle, del 10 al 22 de marzo, y del 31 de marzo al 3 de abril.

Quien quiera ir más allá de los documentos que se ven en esta pequeña exposición, puede recurrir al renovado buscador de la web de la Colección Local.

La **Colección Local de Altza** es un servicio de documentación creado por Donostia Kultura y Altzako Historia Mintegia con el objetivo de recopilar, preservar y dar a conocer el patrimonio documental de Altza. Como ya se ha dicho, la colección alberga documentos de diversa índole y contenido (documentos de archivo, fotografías, crónicas de prensa, mapas, audiovisuales...)



y tiene su sede en la casa de cultura Casares. Allí se ofrece in situ el servicio de consulta, los jueves entre las 17:30 y las 20:00, así como en Internet, a través de la web www.altza.info. En estos momentos reúne más de 23.000 documentos, de los cuales más de 19.600 están disponibles en la web. La web ha recibido 92.289 visitas en los últimos doce meses.

Angelubeako toponimia 1806an: paisaiaren altxor linguistiko txikia

La toponimia de Angelubea en 1806: un pequeño tesoro lingüístico (🖨️)

2025-05-03

Toponimia, lekuak izendatzeko erabiltzen dugun izen-multzoa, gure tokiko historiaren kultura-ondaririk baliotsuenetakoa da. 1806ko dokumentu notarial batean, “D. Sebastián Gregorio eta D^a Rosalía de Garay eta Juan Antonio de Eguilor arteko judizioz kanpoko banaketa” izenekoan, Sarruetako mikrotoponimiaren benetako altxorra aurkitzen dugu.

Toponimoek paisaiaz, garatzen ziren jardueraz eta nabarmentzen ziren elementu naturalen hitz egiten digute. Ondare linguistikoaz eta euskararen eta gaztelaniaren arteko bizikidetzaz ere hitz egiten digute, baita beste substratu linguistiko esanguratsuez ere, gaskoia kasu.

1806ko dokumentuak Sarruetan kokatzen gaitu, Angelubea baserriaren inguruan, Altzako Herrian. Angelubea ondasunen banaketa honen erdigunea da,



Sarroeta, 1852

eta bere inguruan lursail ugari daude, bakoitza bere izenarekin.

Muga edo lurralde erreferentzia gisa aipatuta, Anguelubea baserriaz gain, Anguelugoya, Tolarzar, Lazunenea, Antondegui, Lizarrategui, eta Irasmonea baserriak ere aurkituko ditugu.

Parajeak eta terminoak:

- **Virecruces**: “por el camino carretil de la propia Casa hasta Virecruces”, ziurrenik bidegurutze bat.
- **Soróa**: Anguelubea eta Tolarzar artean kokatutako parajea.
- **Corralea**: Tolarzar eta Gorriti arteko lursaila.
- **Arcaisea/Arcaisevea/Arcaiseagoya**: Toponimo beraren eremu edo aldaera desberdinak.
- **Amutegui**: Hiru oinordekoek lurak zituzten parajea.
- **Otadia**: Partekatutako lursailen eremua.
- **Saldivia**: D^a Rosaliak lurak zituen parajea.
- **Anchovia**: Lurralde terminoa, erreka bat barne.
- **Cecaña**: Anguelualdea eremuan.
- **Peraldo**: Angulubearen ondoko parajea.
- **Anguelualdea**: Angulubearen lotutako eremua.
- **Iturricho**: Ziurrenik iturri txiki bat.
- **Gorriti**: Tolazarrekin batera aipatua.

Dokumentua bereziki baliotsua da, toponimoei buruz hitz egiteaz gain lursail bakoitzari ematen zitzaion erabilera deskribatzen duelako:

- Bideak: “camino carretil”, “camino de Arcaisea”, “camino del manzanal de Tolarzar”, “calzada”.
- Parajeak: Soróa, Cecaña, Peraldo, Saldivia.
- Lursailak: Corralea, Saldivia, Anchovia, Amutegui.

- Lur landuak, laborantzara bideratuak: “tierras labrantes”, “tierra boyada”.
- Sagastiak: batez ere sagardoa ekoizteko: “manzanal de Arcaiseagoya”, “manzanal de Otadia”. Zehazki, dokumentuan sagardoa egiteko erabiltzen den dolareari buruz hitz egiten da: “D^a María Josefa de Eguilior y Garay quedan en la propia conformidad la segunda habitación añadida por la parte del monte, en que vive con derecho de comunidad al lagar para sus usos”.
- “Jaral”: Zuhaitz txikiko mendi eremuak zuhaixka-landarediarekin.
- “Erial”: Landu gabeko lursailak.

Informazio honek garai hartako nekazaritza-paisaia berreraikitze aukera ematen digu, euskal baserriaren ustiapen-eredu tipikoarekin, nekazaritza, fruta-hazkuntza eta baso-aprobetxamendua konbinatuz.

1806tik gaur egunera arte, Altzak oro har, eta Sarroetak berak ere, eraldaketa sakonak izan ditu. Dokumentuan landa-paisaia gisa agertzen dena, baserriak ardatz, nekazaritza-lurak, sagastiak eta mendiak dituen, gaur egun hirigunea da nagusiki, hiriaren zati bat.

Paisaiaren eraldaketa horrekin batera, toponimia tradizionalaren galera progresiboa gertatu da, izendapen berriagoek ordezkatua edo, besterik gabe, ahaztua. Aztertzen ari garen bezalako dokumentuak, beraz, tresna baliotsuak dira ondare linguistiko eta historiko hori berreskuratzeko.

Globalizazioak eta urbanizazioak espazioak homogeneizatzeko eta haien berezitasun kulturalak ezabatzeko joera duten testuinguru batean, toponimia tradizionalaren kontserbazioa erresistentzia kulturalako eta tokiko nortasunaren baieztapeneko ekintza bihurtzen da.

Dokumentu honen transkripzioa Patxi Lazcanori zor diogu, azken sei urte hauetan dagoeneko 569 dokumentu transkribatu baititu, eta horiek guztiak, jatorrizkoekin batera, hemen kontsulta daitezke, Altzako Tokiko Bilduman.

Mapa: Donostiaren eta bere inguruen plano (1852). Biblioteca Virtual de la Defensa. Altzako Tokiko Bilduma, L22778

Sarroetako portutik La Herrerara

“Desde el puerto de Sarroeta a la Errera”



2025-06-11

Patxi Lazcanok Tokiko Bildumarako transkribatu dituen azken dokumentuen artean, 1750ean datatutako bat dago, bereziki interesgarria, lehen aldiz Urumeako Sarroeta portua Herrerarekin eta Pasaia badiarekin esplizituki lotzen duen froga dokumentala eskaintzen digulako:

“Digo que mis partes como mayores de los boyerizos, condujeron todos los materiales de madera y tabla des-

de el Puerto de Sarroeta a la Errera que es en la Playa y Canal del Pasaje ” [1]

Orain arte, Manuel de Larramendiren [2] eta Ricardo de Izaguirreraren [3] aipu historiografiko garrantzitsuak besterik ez genituen, Urumearen bidezko egur eta burdin trafikoari eta Pasaiako badiako ontzigintzarekin zuen harremanari buruzko erreferentziak ematen zituztenak, baina esku artean daukagun dokumentu honi esker, erreferentzia zehatz honekin zalantza guztiak argitu dira.

Dokumentu hau 1750eko azaroaren 12an datatuta dago eta itsasontzi eraikuntzarako materialen garraioa-gatik sortutako zor batekin lotutako eskaera judicial bati buruzkoa da. Demandatzaileak altzatarra den Lorenzo de Ibarburu eta Juan de Jauregui dira, eta demandatua Joseph Antonio de Zelarain pasaitarra da.

3.300 zilarrezko erreal arrunten ordainketa eskatzen dute, itsasontzi eraikuntzarako materialak *Sarrueta portutik Pasaiako hondartza eta kanalean* dagoen *La Herrera*, garraiatzeagatik.

Demandatzaileek, *itzainen maiordomo* bezala, egur eta ohol materialak garraiatu zituzten Simon Phelipe de Zelarainek eta anaiek 1718 eta 1719 artean erregeren aginduz eraikitako hiru gerrako itsasontzientzat. Ondoren, dokumentuak dioenez, *“Frantziako Armadak”* erre zituen. Demandatzaileen arabera, dagoeneko 21.042 zilarrezko erreal jaso zituzten, baina adostutako zenbateko osoa 24.342 errealekoa zen, eskatzen dituzten 3.300 errealak falta zirelarik.

Joseph Antonio de Zelarainek, Simonen seme eta oinordekoak, kontuak doitu zituen demandatzaileekin bere aitaren heriotzaren ondoren. Simon Zelarainek, hil aurretik, zorra onartuko zukeen. Joseph Antoniok demandatzaileei zenbateko osoko ordainagiria eskatu zien Errege Ogasunarekin kontuak likidatzeko (1734), baina

demandatzaileek, *“jornalari pobreak”* bezala deskribatuta, ordainketaren atzerapenagatik kalte larria alegatzen dute.

Demandatzaileek Joseph Antonio de Zelarainek zin egin dezala eskatzen dute, eta zor dagoena ordaintzeko agindua eman diezaiotela, froga aurkezteko prest agertuz demandatuak gertakariak ukatzen baditu. Behin-behineko ebazpenean, auzitegiak eskaera Joseph Antonio de Zelaraini helaraztea erabakitzen du.


Lorenzo Ybarburu Aldave altzatarari buruz esan dezakegu San Martzial parrokian bataiatu zutela 1679ko irailaren 9an. Juan eta Dorothearen semea zen, 1674ko abuztuaren 24an San Martzialen ezkondu zirenak. Lorenzo Ana Añavitarterekin ezkondu zen 1712ko azaroaren 21ean, eta 1755eko apirilaren 6an hil zen.[4]

Altzako Tokiko Bilduman Lorenzo Ibarbururi buruzko hainbat erreferentzia ditugu, Erreterriako Udal Artxibo Historikotik datozenak, eta Ángel Calvok jasotakoak.

Lehena 1735eko azaroaren 23koa da. Lorenzo eta Pedro Ibarburu anaiek, Altzako bizilagunak, Erreterriako kontzejuari eskatzen diote 300 sagardo karga eraman ahal izatea sagardoen bigarren txandan saltzeko.[5]

Hurrengo erreferentzietan ontzigintzarako zuraren negozioetan erabat inplikaturik ikus dezakegu. 1741eko urriaren 18an, Lorenzo eta Pedro Ibarburu anaiek, Altzako bizilagun den Domingo de Echeverria Amorederekin batera, eta Erreterriako Jose de Oiarzavalek Erreterriako alkateari Artxipi eta Egiluze terminoetan errematuriko zur batzuk mozteko baimena eskatzen diote, Caracasko Gipuzkoako Errege Konpainiarekin bost itsasontzirentzako beharrezko zura hornitzeko konpromisoa hartu baitzuten eta 1743ko martxora arte ezingo baitute zuraz baliatu.[6]

Hilabete gutxi geroago, 1742ko urtarrilaren 17an, altzatar protagonista berberekin, Lorenzo, bere anaia Pedro eta Domingo de Echeverriak, Erreterriako al-



kateari onartzen diote Errenteriako galtzada hondatu dutela, Caracasko Errege Konpainiarako zura garraiatzeagatik.[7]

Lorenzo de Ibarrolaren eta kidearen 1750eko eskaera judizialak materialen garraioari eta ontzigitzari buruzko informazioa duen dokumentu sorta interesgarri hau ixten du, Altzaren historiarentzat baliotsua.

Erreferentziak:

[1] Lorenzo de Ibarburu eta Juan de Jaureguien eskaera Joseph Antonio de Zelarainen aurka, itsasontziak eraikitze materialen garraioaren zenbatekoa erreklamatzuz, Sarrueta Portutik Herrerara, 1750-11-12. Gipuzkoako Artxibo Orokorra AGG-GAOCOEI3426. **Altzako Tokiko Bilduma** L24038

[2] LARRAMENDI, Manuel: *Corografía o descripción general de la muy noble y leal Provincia de Guipúzcoa (1754an argitaratua)*: "...y en alas o gabarras chatas y anchas suben la vena para las herrerías del Urumea y bajan el hierro labrado a San Sebastián, y hoy los anclotes y anclas, piezas cada una de 74 a 76 quintales, como son las que se han labrado este año pasado. Baja también de tierra adentro el maderamen necesario para los bajeles al puerto de Hernani, y de aquí por el río hasta más abajo de Astigarraga, y de allí por tierra hasta la Herrería del Pasaje."

[3] IZAGUIRRE, Ricardo: El Urumea y los puertos donostiaras: en torno a los orígenes de San Sebastián. 17. or. "Por todo genero de maderamen de construcción de casas, sin distinción de pieza alguna, debe llevar dicho arrendador cinco maravedís de vellón por cada codo reducido a sesenta y cuatro onzas de grueso siendo la conducción desde el puerto de Hernani al de Santa Catalina o al llamado de Sarroeta en Loyola", 1731ko dokumentu baten aipamena eginez.

[4] Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa: Lorenzo Ybarrola.

[5] Errenteriako Udal Artxiboa (EUA), A58, fol. 371. **Altzako Tokiko Bilduma** A4678

[6] EUA, A64, fol. 281. **Altzako Tokiko Bilduma** A4694

[7] EUA. A65, fol. 17. **Altzako Tokiko Bilduma** A4696

Mapa: Sarruetatik Herrerarainoko bidea, Marrus eta Garberatik. Donostiaren eta bere inguruen planoaren xehetasuna (1852). Biblioteca Virtual de la Defensa. **Altzako Tokiko Bilduma**, L22778

"Nuestra Señora de Hua" naoa (1598)

La nao Nuestra Señora de Hua (1598) 

2025-11-23
Iñigo Landa Ijurko

Simancaseko Artxiboan 1598ko dokumentu interesgarri bat gordetzen dute, **Ubako ermitako Ama Birjinaren** izena duen ontzi bati buruzkoa: "Nuestra Señora de Hua" naoa. Dokumentuak Albalak duela gutxi Ondartxon eraiki eta uretaratu duen San Juan ontziaren erreplikaren antzeko neurriekin egin den ikuskapen ofiziala eta tonaje-ziurtagiria jasotzen du.[1]



Ontziaren jabea eta eraikitzailea **Antonio de Okendo** (1577-1640) gaztea da, garai hartan itsas kapitain arrunta eta Donostiako bizilaguna. Izen bereko Armadako almirante jenerala izango zenaren osaba. Okendok bere kontura eraiki zuen ontzia Donostiako ontzioletan, eta agiri horrekin itsasontziaren ezaugarriak ziurtatzea nahi zuen, Espainiako Koroak tamaina handiko ontzien eraikitzaileei ematen zizkien errege-laguntzak lortzeko.

"Nuestra Señora de Hua" izena eman zion ontzi berriari, San Martzial parrokiaren jurisdikziopean zegoen Ubako ermitaren ama birjinaren izena. Ermita jatorriz Engomez maiorazkoarena zen, baina herentzien bidez Oquendo leinuaren esku geratu zen XX. mendera arte, Miguel de Oquendo y San Millan-ek 1688. urtean sortu zuen San Millan markesgoaren jabetzapean.

Ikuskapen ofiziala 1598ko irailaren 13an egin zuen Antonio de Urquiola jeneralak, "Superintendente de fábrica de navíos y plantíos" kargua zuenak. Urkiola Bordalabordako errege ontziolak zuzentzeaz gain, ontzigitzaileei maileguak emateaz arduratzen zen.[2]

Dokumentuak **ontziaren ezaugarri teknikoak** ziurtatzen ditu: luzera: 50 ukondo ken 1/6; zabalera: 17 ukondo eta 1/4; altuera: 10 ukondo eta 1/4. Dokumentuak adierazten du Christobal de Barrosek erabiltzen zuen ukondo erreala erabili zela, ukondo bakoitzeko 0,575 metro ingurukoa. Horrela, gutxi gorabeherako neurriak, metrotan, honako hauek izango lirateke gutxi gorabehera: luzera 28,75 m; zabalera 9,92 m; altuera 5,89 m. Proportzio horiek garaiko galeoietan ohikoak dira, eta luzera/zabalera erlazioa 3:1 ingurukoa da.

San Juan itsasontziak 28 metroko luzera, 7,5 metroko zabalera eta 6 metroko altuera ditu, "Nuestra Señora de Hua" ontziaren antzekoak, zabalera izan ezik. Horri esker, Okendoren ontziaren gutxi gorabeherako irudia egin dezakegu.

Bi itsasontzi horien artean zegoen ezberdintasun handiena beraien eginkizunean datza: San Juan ba-

leontzi bat zen, eta Nuestra Señora de Hua, berriz, **gera-ontzi bat**. Hauek ziren bere armamentua eta ekipamendua:

- Burdinurtuzko artilleriako 11 pieza
- 5 kintal bala eta 7,5 kintal bolbora
- 21 mosketa eta 3 arkabutz
- 36 txuzo eta 34 erredola
- Beharrezko aparailu, kandela, kable, aingura eta txalupa guztiak

Ontzi berria Ubako Amaren izenpean jarritz, Oken-dok nabigazioan eta batailan Ama Birjinaren babes-izatea bilatzen zuela pentsa daiteke. Birjina babesle gisa, ordea, Ubako Ama ezagunagoa da tradizionalki, etxe-ko txikienei lo egiten laguntzeko eskea jasotzeagatik. **Lo Oneko Ama** bezala ezaguna, duela gutxi arte Mendekoste Pazkoko astelehenero egin da ermitarako erro-meria. Gure inguruko sinestunek erromeria horretara eramaten zituzten urte horretan jaiotako haurrak Ama Birjinaren irudiari musu ematera, lo hobeto egiten la- gun diezaien. Gaur egun eliza ortodoxoaren esku dago ermita.

Erreferentziak:

[1] Simancaseko Artxibo Nagusia, Ogasuneko Kontularitza Nagusia, XVII Atala - Soldataren kontularitza, 397.2 Azpia- tala - Bigarren Seriea, L 8 Signatura, 1 Pieza, 6 Folio. Jatorriz- ko dokumentua hemen eta transkripzioa hemen.

[2] LANDA, Iñigo; ECHEVESTE, Juan Carlos: “Ontzi- gintzarako haritz-landatzeak Altzan XVI. mendean“, on Es- tibus (2025-07-15). Ikus: “Ontzigintza Altzan, zertzelada batzuk“, in Estibus (2024-04-12).

1. irudia: Ubako Ama Birjinaren irudia. (Argazkia: Joxerra, 1987).

2. irudia: Ubako ermita. (Argazkia: Ángel Calvo, 2001)

3. irudia: Grabatua: “Plancius Taking A Sight”, 1592. Egilea: Theodoor Galle

4. irudia: San Juan ontziaren uretaratzea (Argazkia: Javier Colmenero, Noticias de Gipuzkoa)

5. irudia: Ubako erromeria. (Argazkia: Ángel Calvo, 2003).

Las sidrerías en Altza en 1931-1933
Sagardotegiak Altzan 1931-1933 urteetan

2025-12-09

A principios del siglo XX, las sidrerías se pusieron de moda en Altza y en la comarca del Urumea. Has- ta entonces, la producción de sidra se encontraba en un continuo declive , pero con la industrialización se produ- jeron grandes cambios sociales y de costumbres, y entre otras cosas, se extendió la **cultura del ocio**. Las sidrerías, además de vender su producción, se convirtieron en lu- gares de encuentro para la toka y los bolos, el bertsolaris- mo o la música, acompañados con el acordeón.



Sin embargo, después de la Guerra Civil, llegó la de- cadencia. De ser el producto principal que daba la tierra en Altza durante siglos, pasó a ser testimonial. El vino, la cerveza y las bebidas gaseosas tomaron el lugar de la sidra. Además, a partir de la década de los 50, los nuevos barrios, las infraestructuras y el impacto de la industria redujeron notablemente la zona rural. De esta manera, Altza quedó fuera del resurgimiento de las sidrerías que hemos conocido en las últimas décadas en torno al rito del txotx.

Si volvemos la vista a la época anterior a la Guerra Civil, en este documento que conservamos en la Colec- ción Local, “*Relación de la existencia de sidra en la Pro- vincia de Guipúzcoa para el pago del impuesto concertado con la Excm. Diputación*”, encontramos datos intere- santes correspondientes a las temporadas **1931-1932 y 1932-1933**.

Los 76 pueblos productores y/o vendedores de sidra están organizados en 35 distritos, constituyendo un dis- trito en sí mismo los pueblos con grandes cantidades. Atendiendo a los resúmenes, Altza aparece en tercer lugar, después de Donostia y Tolosa. Estos son los que aparecen en el ranking entre los doce primeros:

Distrito	1931-1932 (litros)	1932-1933 (litros)
Donostia	2.193.904	1.349.967
Tolosa	410.729	317.422
Altza	557.155	300.567
Astigarraga	524.278	237.288
Hondarribia	308.417	220.050
Irun	429.462	208.312
Hernani	423.586	193.974
Pasai San Pedro	179.977	99.399
Pasai Donibane	128.127	81.680
Pasai Antxo	114.594	64.915
Errenteria	435.635	140.097
Zarautz	293.015	134.230
TOTAL (Gipuzkoa)	8.359.713	4.427.191

En el mismo documento, aparecen las listas de los propietarios de sidrerías en esas dos temporadas. Hay

22 nombres y apellidos que aparecen en ambas temporadas, 19 solo en la temporada 1931-1932, y otros 10 solo en la lista de 1932-1933. A continuación se muestran sus nombres y apellidos ordenados alfabéticamente. El domicilio que hemos añadido entre paréntesis es el que aparece en el censo electoral de 1934 que hemos consultado:

Aparecen en ambas temporadas:

- Tomás Aguinagalde (Arteaga)
- Franciso Anabitarte
- Juan Arámburu (Aramburu enea)
- Celestino Atorrasagasti (Mirasun)
- María Aztarbe
- José María Elizalde (Churdin)
- Martín Er[r]andasoro (Artolategui)
- Juan Galarraga (Mendiola)
- Nicolás Garbizu
- José Guruceaga (Iruguruceta)
- Juan Irastorza (Papin)
- José Iruretagoyena (Lizardi)
- Nicolás Labaca (Cillarquiñenea)
- Andrés Loinaz (Trinquete)
- José Machain (Juantzeta)
- José Maiz (Antondegui)
- Gregorio Mendizábal (Peruene zar)
- José Otaño (Zapirain)
- Antonio Porras (Leku Ona)
- Ignacio Salaverría (Julimasene)
- José Ramón Sarriegui (Irazuene)
- Fidel Tolarechipi (Errota zar)

Solo en la temporada 1931-1932:

- Francisco Altuna (Larracho)
- Viuda Anabitarte

- N[icolasa] Arízaga (Arrretenea)
- José M. Arrieta (Pelegriñene)
- Pedro Arrieta (Soroburu)
- Julián Arrieta (Arrieta)
- Vicente Arrieta (Pelegriñene)
- Miguel Barandiaran (Iparraguirre)
- Modesto Berrondo (Molinao)
- Casares y Salaverría
- José Esnaola (Goicoechea)
- José Luis Galardi (Nieves-enea)
- Viuda Gaztelumendi
- Juan María Lujambio (Arrillaga)
- Martín Marichalar (Labeas)
- José Muguruza (Chisen enea)
- Marcelino Múrua
- Ignacio Orbegoza (Ermalidos)
- Ignacio Zubizarreta (Tolarecho)

Solo en la temporada 1932-1933:

- Victoriano Anabitarte (Parada)
- Joaquín Arízaga (San Marcos)
- Juan Beguiristain
- Serapio Erdocia
- Pedro Larrañaga
- José M^a Lazcano (Ochoqui)
- José M^a Liceaga (Garciategui)
- José Maiz (Antondegui)
- Jesús Santos (Arretenea)
- Santos Zabala

De esas listas, actualmente solo siguen las dos sidrerías que se encuentran en el caserío Gatziategi.

Serán bienvenidas todas aquellas informaciones que puedan complementar los datos mencionados en esta entrada, escribiendo un comentario aquí o a través de los medios de contacto de la asociación.

KRONIKA ZAHARRAK / CRÓNICAS ANTIGUAS

Domingo de Arnao Bidaori emandako lizentzia hiru esklabo beltz eramateko Ameriketara (1537)

Licencia dada a Domingo de Arnao Bidao para llevar tres esclavos negros a América (1537) 

2025-11-07

I. Landa, J.C. Echeveste

Indiako Artxibo Orokorrean jarraian komentatzea merezi duen dokumentu hau aurkitu dugu: 1537ko Errege Zedula bat, non Domingo de Arnao Bidaori

-Donostiako bizilagun eta Arnaobidaio oinetxe altzatarren jauna izandakoa- Ameriketara hiru esklabo beltzekin batera joateko baimena ematen zion, Koroak bere kolonietara bidaiatzeko garatu zuen lizentzia sistemaren adibide tipikoa.

1492an kontinente berri bat aurkitu ondoren, Espainiako monarkiak sistema administratibo bat ezarri zuen Indietara emigratzeko eta kolonizazioan parte hartzeko. Baldintza legal eta administratibo zorrotzak ezarri zituen: odol garbitasuna frogatu behar zen, deskribapen fisikoa eman faltutzeak ekiditeko, bere familiarekin bidaiatu behar zen edo, bestela, baimen berezia lortu, eta izapidak Sevillako Kontratazio Etxearen bidez egin behar ziren. Arauak zorrotzak izan arren, legez kanpoko emigrazioa zerbait arrunta izan zen.



Arnaobidao (San Telmo Museoa, 1935)

XVI. mendean kalkulatzen da 200 eta 250 mila pertsona artean emigratu zuela, biztanleriaren % 4 inguru, eta bide honetatik Amerikara eraman ziren esklaboen kopurua oso txikia izan zen, % 1 baino txikiagoa. Hain zuzen ere, *Recopilación de Leyes de los Reynos de Indias* dokumentuan jasotzen denez, agintzen zen ez zirela pasatu behar “*esklabo zuriak, beltzak, loroak, mulatoak, ez eta berberiarrek ere, Erregearen baimen espresurik gabe*”, eta ez betetzearen zigorrak ezartzen zituen. (“*El Emperador D. Carlos, y el Príncipe Gobernador. Ordenanza 124. La Emperatriz Gobernadora en Madrid á 25 de Febrero de 1530.*”)

Baldintza ekonomiko, pertsonal eta familiarra hobetzea, krisi ekonomikotik ihes egitea edo Amerikan ezarritako senideekin biltzea ziren emigratzeko arrazoi nagusiak. Baina bidaia garestia eta arriskutsua zen. Lehenik Sevillara iritsi behar zuten, lizentzia Kontratazio Etxean tramitatu, itsasontziko txartela ordaindu, bidaia egin -helmugaren arabera 1 eta 4 hilabete bitartean-, eta gaixotasunen, ekaitzen eta piraten mende egon.

Aurreko guztitik ondoriozta daiteke Ameriketara emigratu nahi zuenak gizarte maila eta baliabide nahikoak izan behar zituela. Hori da, hain justu, Domingo de Arnaobidaoren kasua. Arnaobidaoko jaunak 1511n baserria eta horren ondasunen jabetzak galdu zituen, Iñigo Ortiz de Salazarrekin eta Miguel Ochoa de Olazabalekin zorra egiteagatik, zehazki, karabela bat eraikitzeo ohol eta burdina kopuru jakin bat ez ordaintzeagatik.

1534an, Domingo de Arnaobidaoren Catalina, Dominga eta Gracia alabek Maria Gomez de Olazabal, Miguel Ochoa de Olazabalen alabaren aurkako auzia hasi zuten, baserria eta bere jabetzak itzultzeko eskatuz, aitaren ezjakintasuna eta absentzia argudiatuz. Auzi horren ondoren, 1538an, aita zendutzat hartu

zuten, eta horrek pentsarazten digu Domingo de Arnaobidaoren heriotza Amerikara abiatu baino lehen-
txeago gertatu zela, edo bidaian zehar, edo helmugara iritsi eta gutxira.

Domingo Arnaobideaok lortutako lizentziari helduz, bertan argi erakusten da nola funtzionatzen zuen lizentzia sistemak: partikularrek errege lizentzia eskatu behar zuten esklaboa garraiatzeko; esklabo bakoitzeko bi dukatiko ordaindu behar zuten; Sevillako Kontratazio Etxeak lizentzia hauek erregistratzen eta kontrolatzen zituen; eta funtzionarioek jatorrizko dokumentua “*hiru giltzen kutxan*” gorde behar zuten baimenduta zeuden baino esklabo gehiago ez garraiatzeko.

Arnaobidaroren “biztanle edo konkistatzaile” (zedulak zehazten duen bezala) baldintzak iradokitzen du Amerikan behin betiko ezartzera zihoala, langile esklaboak bere proiektu kolonialera eramanez. Kasu honetan, esklaboak etxeko zerbitzueterako zeuden: “*zure pertsonaren eta etxearen zerbitzurako*”.

Dokumentu honek oso ondo erakusten du nola sistematizatu eta erregulatu zuen Espainiako burokraziak penintsulako emigrazioa kolonietara eta esklaboen merkataritza, hiru mende baino gehiago iraun zuen kontrol administratibo zorrotza erabiliz.

Hona hemen dokumentua:

1537-05-12, Valladolid

Errege Zedula Domingo de Arnao Bidaori lizentzia emanek hiru esklabo beltz Indietara eramateko, dagozkion eskubideak ordainduta.

Indiako Artxibo Orokorra, INDIFERENTE, 422, L.17, F.131R-131V

(Orri-bazterrean: *Domingo de Arnao Bidao*)

Por la presente doy licencia e facultad a uos Domingo de Arnao Bidao para que de estos nuestros Reynos e señorios

podais pasar e paseis a las nuestras Yndias islas e tierra firme del mar Oceano tres esclavos negros para serui(cio) de vuestra persona y casa pasando vos en persona a poblar o conquistar a las dichas nuestras Yndias e no de otra manera e hauiendo primero pagado a Diego de la Haya cambio en nuestra corte los dos ducados de la liçençia de cada vno dellos por quanto el por nuestro mandado tiene cargo de los reçibir e cobrar e siendo tomada la razon desta mi çedula por los nuestros ofiçiales que residen en Seuilla en la Casa de la Contrataçion de las Yndias e mando a los nuestros ofiçiales de la isla o prouinçia donde lleuaredes los dichos esclavos que tomen esta nuestra çedula y original mem(oria) la pongan en el arca de las tres llaues para que por virtud della no se puedan pasar mas de los dichos tres esclavos negros de que ansi vos damos liçençia fecha en Valladolid a doze dias del mes de mayo de mill e quinientos y treynta e siete años. Yo el Rey refrendada de Samano y señalada de Beltran y Carvajal y Bernal y Velazquez.

Yden a Joan de Astorga para pasar a las Yndias vn esclauo negro en forma.

El rey

Erreferentziak:

- “Recopilación de las Leyes de los Reynos de las Indias, mandada imprimir y publicar por la Magestad Católica del Rey Don Carlos II, nuestro señor”, 1998 [1791], III. tomoa, 26. titulua. XVII. Legea.
- Pablo Iglesias Aunión: *“Las licencias para viajar a Indias. Estatutos de limpieza de sangre y requerimientos en el Trujillo del siglo XVI”*, XXXI Coloquios Históricos de Extremadura. Homenaje a la memoria de don Carmelo Solís Rodríguez, 2003, 241-264 orr.
- Patricia Escandón: *“Esta tierra es la mejor que calienta el sol”: La emigración española a América, siglos XVI-XVII”*, Historia comparada de las migraciones en las Américas-n. Instituto de Investigaciones Jurídicas, UNAM. Mexiko, 2014, 19-31 orr.
- Gonzalo Durán López: *“Pasajes a Indias a principios del siglo XVIII: Precios y condiciones”*. La emigración española a Ultramar: 1492-1914-n. Asociación de Historia Moderna, 1991, 199-214 orr.
- *“De la casa solar de Arnaobidao en jurisdicción de la ciudad de San Sebastián”* / Domingo de Lizaso. Nobiliario de Guipúzcoa. Donostia: probintziako inprenta, 1901, II.T., 25. kap.
- 1511-10-24. Iñigo Ortiz de Salazar eta Miguel Ochoa de Olazabal, Donostiako (Gipuzkoa) bizilagunei, Arnao Vidaoko etxe eta baserriaren zorrei eta bahiketari buruz, litigatu zutenaren auziaren exekutoria. Valladolideko Erret Kantzelaritzako Artxiboa, EJECUTORIAS ERREGISTROA, 268. kutxa, 49.
- 1523-05-05. Altzako (Gipuzkoa) kontzejua, justizia eta erregimendua eta Miguel Ochoa de Olazabal, Donostiako (Gipuzkoa) bizilagunari, Miguel Ochoa de Olazabalek Arnao Vidaoko baserriaren jabe izateagatik ordaindu beharreko zergen ordainketari buruz, litigatu zutenaren auziaren exekutoria. Valladolideko Erret Kantzelaritzako Artxiboa, EJECUTORIAS ERREGISTROA, 361. kutxa, 35.
- 1534/1538. Arnaobidao baserria bere ondasunekin itzul dadila eskatzea, demandatuaren aitak demandatzailearen aitari bahitu zizkionak, burdina-kopuru jakin bat ordaindu ez zio-

lako. Demandatzailearen arabera, burdina hori ez zion eman. Demandatzaileak Miguel Ochoa de Olazabalek Domingo de Arnaobidaroren ezjakintasuna eta absentzia aprobetxatu zituela alegatzen du. / Catalina de Arnaobidao, Donostiako bizilaguna, berez eta Gracia eta Domenja ahizpen lagapen-hartzaile gisa, denak Domingo de Arnaobidaoren oinordekoak, María Gomez de Olazabal Donostiako bizilagunaren eta bere semearen aurka, Miguel Ochoa de Olazabal Donostiako bizilaguna zenaren oinordeko gisa. Valladolideko Erret Kantzelaritzako Artxiboa, Auziak, Quevedo Idazkaritza. K97/2 - 16. leg., 6 pieza, 600 orri.

• 1539-08-19. Antonio de Idiaquez jaunak, Santiagoko ordenako zaldunak, berez eta Gracia de Olazabal andrearen senar gisa, eta Nicolas de Plazaolak, bere aldetik eta Catalina de Arnaobidao andrearen senar gisa, Arnao Bidao baserriaren eta haren ondasunen jabetzari buruz egindako transakzioa eta iruzkina. Donostiako Artxibo Historikoa. San Millan eta Villalegre markesaren artxiboa, 64. kutxa, 491. zenbakia.

• Altzako Tokiko Bilduma: **Arnaobidao**.

Gaur 40 urte ireki ziren Altzako anbulatorio berriko instalazioak

Hoy hace 40 años que se abrieron las instalaciones del nuevo ambulatorio de Altxa (📄)

2025-02-25
Antxon Alfaro

1966 urtean, Altzako ekialdean biztanle-kopurua handitzen ari zenez, behin-behineko anbulatorioa ireki zen Erroteta auzoko etxabe batean.

Hasieratik lokal horrek ez zituen osasun-zentro iza-teko baldintza onenak betetzen. Urteak igaro ahala, hondatu egin zen. 1981ean, SIADECOk txosten bat egin zuen Donostiako Udalarentzat Altzako udal-barruti zaharraren osasun beharrei buruz, eta honako hau adierazi zuen: “el estado actual de las instalaciones es de deterioro y miseria. (...) Tras 14 años de uso, su aspecto es lamentable y hacen dudar a cualquiera sobre sus condiciones higiénicas.” [1]

Egoera horren ondorioz, 70eko hamarkadaren amaieratik, Altxa, Herrera eta Larratxoko Auzo Elkarteen anbulatorio berri bat eraikitzea eskatu zuten, espezialitate berriak ere izango zituen. Auzotarren borroka luze horren prozesuak argi erakusten du azken hamarkadetan hiriaren zati honetan lortu diren hobekuntzak herritarren aktibazioaren eta mobilizazioaren ondorio izan direla beti.

Herritar askoren borondatezko lanak 1985ean eman zituen bere fruituak. Garai hartako prentsan jasotzen zen bezala, anbulatorio berriak urte hartako otsailaren 25ean, astelehena, ireki zituen ateak. Azken kostua 150.000.000 pezetakoa izan zen. Eraikin berriak hiru solairu zituen, eta guztira 2.030 m²-ko azalera. Kalkuluen arabera, osasun-zentro berriak 25.000 biztanletik gorako osasun-premiei erantzun beharko lieke.



Altzako auzo elkarteak, kartel baten bidez, auzoari jakinarazi zion anbulatorio berria irekiko zutela, baita INSALUDEk zer profesionalekin hornitzea aurreikusi zuen ere: zortzi mediku, hiru pediatria, hamabi erizain, lau klinika-laguntzaile, zortzi zeladore eta bi administrazio-laguntzaile. Epe laburrera, kirurgiako, hematologiako, obstetriziako, psikiatriako, odontologiako, otorrinolaringologiako, oftalmologiako, erradiologiako, errehabilitazioko, analisi klinikoetako eta larrialdietako kontsultak martxan jartzeko asmoa zuten, eta, jakina, aurreikuspenetan geratu ziren.

Alza-Rotetako Azpieskualdeko Osasun Zentroa ize-narekin, ofizialki inauguratu gabe, jarri zen martxan. Auzoan esaten zen garai hartan Osasun ministro zen Ernest Lluch etorriko zela inauguratzera, baina hori ez zen gertatu, eta ez zen ekitaldi ofizialik izan.

Hala ere, Alza eta Larratzoko Auzo Elkarteek inaugurazio herrikoi bat antolatu zuten eraikin berriaren sarreran, otsailaren 22an, irekiera egunaren aurreko ostira-lean, auzokideen lorpen handia ospatzeko helburuarekin. Auzo elkartetako kideak moztarotuta joan ziren inaugurazio ekitaldira "ofizialtasuna" ematera. Herrerako Kilikariak Fanfarea ere bertan izan zen, eta lunch batekin amaitu zen ekitaldia. Anbulatorioan sartzeko errepidea bete egin zen, auzokide asko bertaratu baitziren. Batzuek Ernest Lluch eta PSOEko beste ordezkari politiko batzuk ikustea espero zuten, baina ez ziren agertu.

Erreferentzia:

[1] Siadeco: "Necesidad de un ambulatorio en el barrio de Alza". Donostia, 1981, 58 or.

Martuteneko Estankoa (📖)

2025-05-11

K. Glez. Galarraga

-Egunon. Ongietorriak, gaur, maiatzaren 3an, JANE'S WALK Donositako Elkarteak, Sarroeta Auzo Elkarteak eta Altzako Historia Mintegiak prestatu duten ibilaldi honetara.



Arg.: Asier Pagoaga

